

NARRATIBA

Zuhaitzaren adarrak

NOR BERE BIDEAN (ORBETARRAK III)

Joan Mari Irigoien
Elkar, 2010
682 orrialde. 27 euro

Leire ZUBELDIA

Zuhaitz batekin alderatu zuen Joan Mari Irigoien idazle altzatarrak orbetarren trilogia: "Bestea da mundua" lehen liburuan Orbe familiaren hastapenak kontatu zituen, sustraiak, beraz; "Haragiaren gauak eta egunak" bigarren liburuan, Nazario eta Reginaren familiaren garapeneren berri eman zigun, enborra, hortaz; eta honenbestez, "Norbere bidean" eleberririk zuhaitzaren adarrak irudikatzen ditu, Orbe familiaren azkena. Hala entzun diogu egileari: azkena dela, eta adar hauetatik ez dela kimu berririk aterako. Baina, era berean, Orbe abizenari bizirik jarraitzeko aukera ematen dio Irigoienek, familiaren hirugarren belaunaldia irudikatzen duten bi mutikoren jaiotza bidez.

1986. urtean gaude. Urte honetarako hilak dira Maria Bibiana eta Gabino ez beste anai-arreba guztiak, baita Nazario Orbe, Regina Aldasoro eta izaba Ernestina ere. Funtsean, ia zazpiehun orriko eleberririk, Gabino eta Damasoren arteko gutun trukaketa bat da. Gabinok, duela 15 urte anai zenak idatzitako eskutitz sortari erantzutea erabakitzen duenean hasten da dena. Kontakizun trukaketa horren bidez, sendiko kideen paraderearen berri jasotzen du irakurleak. Zorigaiztoko para-



deroak, orbetarren familiaren gainbehera irudikatzen dutenak. Alde horretatik, aurreko bi liburuetan kontatuarekin eta gertatuarekin bat datorren jarraipena da hirugarren hau. Irakurleari ezagunak zaizkion erreferentziak agertzen dira protagonisten oroitzapenetan: Nazarioen anaia Bernardo, Villalbako markesa, aita kalonjea, Felipe Gastaminza, eta nola ez, Benjamin Maria, orbetarren leinuaren ohorea zikindu zuen orbana.

Baina, nago, bestetik, Nazario Orbe, Regina Aldasoro, Teofilo Maria, izaba Ernestina eta Damasoren azken urteen (Domingo eta Adaren patua bigarren liburuan ezagutu genuen) kontakizunak baino pisu handiagoa duela bi anaien ar-

tean sortzen den eztabaidak. Pertsonaien bidez, frankismo garaitik trantsiziara arte, elizak, politikak eta oro har gizarteak jasan duen bilakaerari buruzko hausnarketa egiten du Irigoienek, eta honek bigarren maila batean uzten du trilogiaren benetako ardatza, zuhaitzaren enborra.

Finean, arrazoiketa lan bat da Irigoienek dakarkiguna. Zenbaitetan, nobelaren orde saiakera bat irakurtzen ari dela iruditu zaio irakurle honi. Aipatutako ariekta burutzeko pertsonaien erraietaraino sartu da egilea. Bakoitzaren izaeraren zoko ezkutuetan begiratu du. Bere eskua baino hobeto ezagutzen ditu idazleak liburuko bi protagonistak. Maisuki osatu eta modelatu ditu, eta erabateko koherentziaz hitz eginarazi die. Baina susmoa dut hitz horiek enborretik gehiegi desbideratutako adarrak ez ote diren, kimatu beharrekoak zuhaitzari behar baino zama gehiago erantsi ez diezaioten.

Zuria eta beltza dira Gabino eta Damaso: lehena Elorrietako santutegian bizi da fraile franziskotar egin zenetik. Fededuna da beraz, nahiz eta Jainkoarengan sinesteko eran aldaketak jasan dituen. Abertzalea eta euskaltzalea ere badugu. Aldiz, Damaso zientzialaria da, atea, eta Cervantesen hizkuntza miresten du euskara mespretxatzen duen modu berean. Ideala eta arrazoia; bihotza eta burua; euskal mundua eta erdal mundua. Beraz, bi elementu antagonisten arteko eztabaida da irakurleak topatuko duena. Enbor bereko bi ezpal ezberdin, biak ere enborraren norabidetik desbideratuta, nor bere aldera, «norbere bidean».



Víctor MORENO

Oficio triste

Entiendo que el oficio de crítico literario tenga que ser tan triste como es triste. Es necesario leer tanto para encontrar tan poco bueno que, al final del viaje, uno se pregunta si merece la pena ejercer dicho oficio y beneficio.

A mí no me extraña que algunos de ellos escriban tan mal sus reseñas. Los modelos textuales que podrían imitar son tan nefastos como sus censuras.

Ni la literatura mejora la crítica; ni ésta la literatura. A Marías le han dicho mil veces que su sintaxis se ahoga en la ambigüedad, y ahí sigue impávido, consumiendo anacolutos hasta asfixiarse. Y a los críticos se les ha recriminado mil veces que sus reseñas están llenas de tópicos y de adjetivación tan huera como insensata, y han terminado por tomarse tal acusación como alabanza.

A puro de ser bondadoso, el crítico cede y lo que juzga como bodrios, termina tratándolo como novelas pasables, más o menos interesantes, y que él, por supuesto, las ha leído de un tirón. Claro. Para quitársela de encima cuanto antes. ¿Qué pensaba, pues, el autor cuando lee este tópico?


Es uno de los espectáculos tristes de la crítica. Ver sus nulos esfuerzos de adjetivación para justificar la bondad de las novelas que dice leer, intentando hacerlas pasar por legibles cuando sabe que no lo son.

Lo mismo sucede con los premios que se conceden. Les cuesta dos hernias mentales a los jurados encontrar razones específicas para otorgarlos.

Lo que han dicho de Matute, a propósito del premio Cervantes, lo han dicho tantas veces de otros escritores que da grima detenerse a repasar justificaciones tan horteras.

El problema es que hasta los premiados se expresan como si fuesen críticos. Al final, sólo dicen algo nuevo los que rechazan los premios, sean de la naturaleza que sean.

KALERATU BERRIAK

LANGILE BORROKA
ETA MAITASUNA

ERROTİK
Gotzon Barandiaran
Susa, 2010
200 orrialde. 17 euro

Bi kontaketek bat egiten dute nobelan: Bilboko "Euskalduna" ontziolak 1984-1987 artean bizi izandako garai sozioekonomiko eta politiko latzak, alde batetik, eta aita eta alaba baten arteko harreman gatazkatsuak, bestetik. "Arrakalak" eta "Katamalo" poema liburuen ondotik, "Errotik" da Barandiaranen estreinako nobela.

ZAHARTZARO
AMESTUA

3 MARIAK
Arantxa Urretabizkaia
Erein, 2010
190 orrialde. 15 euro

Urretabizkaiaeren eleberririk autobiografikoena da "3 Mariak". Bertan, 80 urteko bi zahar dira protagonista, baina zaharrak izanagatik ere, emakume hauek ez daude atzera begira, momentua bizi dute. Nobela honetan, gutxienez zortzi urteko aldizkako lana dago, ogibideak eta bizitza pertsonalak utzitako tartetan egina baita.

IPAR EUSKAL HERRIKO
LEHEN GAZTETXEA

PATXA. BESTA BAI, BORROKA ERE BAI | Eneko Bidegain
Gazuzain, 2010
265 orrialde. 16 euro

Zazpi urteko ibilbidea izan zuen Patxak, rock erradikala, feminismoa, festa alternatiboak eta abertzaletasunari lotutako Ipar Euskal Herriko lehen gaztetxea izan zenak. Eneko Bidegain kazetari eta idazlearen lanak Patxa kolektiboaren historia kontatzen du, garai-ko testuak eta militanteen lekukotasunak eskainiz.

«LOTSATI»REN
ANTOLOGIA

ILUNPETIK ARGIRA
Gurutz Sarasola Martinez "Lotsati"
Alberdania, 2010
120 orrialde. 14 euro

Industrialen familia batean jaioa, Gurutz Sarasola (Itsasondo, 1915-Donostia, 1936) egunkari eta aldizkarietan olerkiak argitaratzen hasi zen 1935ean, *Lotsati* izengoitiaz. Urte luzez ahaztua izan ondoren, poeta honen lana eta bizitzaren inguruko zertzeladak biltzen ditu orain liburu honek, Alvaro Rabelliren eskutik.